

GARAITUZ PROGRAMAREN EBALUAZIOA – EMAITZAK ETA ONDORIO BATZUK

Dokumentu honek, pasa berri den 2015eko ekainean UPV/EHUko Koordinazio Taldeak Garaituz Programako ikasleei bidalitako galdeketa lorturiko emaitza eta ondorio nagusiak jasotzen ditu.

Dokumentu honetan I eranskinean batzen den galdeketa, UPV/EHUko Koordinazio Taldeak landu zuen eta talde hau gauzatzen ari den Garaituz Programako ebaluazioan barne hartzen da, programa honetan parte hartzen duten ikasleen iritzi nagusienak batzeko helburuarekin.

Lehenik eta behin, jasotako erantzun maila altua azpimarratzekoa da, galdeketa bidalitako 84 ikasle parte hartzaileen %100ak bete baitu.

Emaitzen ulermena errazteko, informe hau portzentajeak irudikatzen dituzten grafiko zirkular eta galdera bakoitzeko erantzunetatik ondorioztatutako proportzioez baliatzen da. Proportzioak ezberdindu asmoz, grafikoetan tonu ezberdinak erabili dira, erantzunen 4 mailako *Likert* eskala aintzakotzat hartuz non lehenengoko maila *ezer* da eta tonu urdin ilunez agertzen den, eta erantzunak *ezer* mailatik urruntzen doazen heinean eta aurkako *asko* mailara hurbiltzen doazenean, tonua argitzen joango da mailaz maila urdin argienera heldu arte.

Aldi berean, informe honen II eranskinean, *ezer*, *zerbait*, *nahiko* eta *asko* mailatako erantzunen portzentajeak batzen dituen taula bat agertzen da.

Dokumentua Garaituz Programaren fase ezberdinetako eta agente parte hartzaileei buruzko iritziak jaso nahi izan diren bost multzotan banatzen da.

Multzo hauetan galdetutako alderdiak honako hauek izan dira: programari buruzko hasierako informazio epea eta hautaketa-prozesua, Prestakuntza Programa Gehigarria, enpresaren parte-hartzea, Koordinazio Talde eta Ikertzaile zein Irakaskuntza Pertsonalaren balorazioa, eta azkenik, programarekin erlazionatutako edozein alderditako ikasleen azalpen kualitatiboak.


Amaitzeko, informe honetan ikasleen balorazio zein erantzunetatik lorturiko ondorio eta ideia nagusiak jasotzen dituen ikuspegi orokor bat ematen da.

I Multzoa: Programari buruzko informazioa eta hautaketa-prozesua

Garaituz Programaren ikasleen bilketarako iturri nagusiak, ordena honetan, honako hauek izan ziren: UPV/EHUko berezko irakaskuntza-pertsonala %39arekin eta ikasle guztiei egindako mailinga %37arekin, bien artean erantzunen %76a baturik. Hirugarren tokian %16arekin kokatzen dira ikaskideen bitartez Programaren ezaguera eduki zutenak.


1go Grafikoa: Garaituz Programari buruzko iturri nagusia

Ikasleen portzentajea altu batek (%32ak) dio nahiko informatua zegoela edo oso informatua



(%52ak) programaren helburua eta motibazioarekiko, eta positiboki baloratzen du aurrera eraman zen hautaketa prozesua. Beraz, azpimarragarria da ikasleen %84ak alderdi honekiko asebetetze maila altua erakusten duela.


2. Grafikoa: UPV/EHU web guneak eta Koordinazio Taldeak eskainitako informazioaren argitasuna



PROGRAMA **GARAITUZ** PROGRAMA

Ikasle inkestatuen %85a nahiko edo guztiz bat dator aurrera eraman zen hautaketa-prozesuarekin, azpimarratzekoa delarik guztiz bat egin duen %56ko portzentajea. Inkestatuen %2ak bakarrik erakusten du desadostasuna eraman izan den hautaketa prozesuarekin.

3. Grafikoa: Hautaketa prozesuaren egokitzapen maila



Lehenengo multzo honi buruzko galdera zabalaren erantzun modura, ikasleari hautaketa prozesu eta programari buruzko informazioarekiko zein alderdiren hobekuntza edo falta sumatu duten galdetzean, 38 pertsonen ideia baten ekarpena egin dute. Gairik errepikatuen, parte-hartzea hasi aurretik esleituriko enpresaren egoerari buruzko ezagutza handiagoaren beharra.


Nahiz eta programaren izaera berritzailea onartu, maiz azaldu den bigarren gaia ikasleek Garaituz Programaren jatorria ulertzeko anabasa izan da

Bukatzeko, gehien errepikatzen den hirugarren ideia, galdera zabal honi euren iritzia islatu duten ikasleen artean, elkarri zuzenean egiteko eta dokumentuak aurkezteko epeei egiten dio erreferentzia.


II Multzoa: Prestakuntza Programa Gehigarria (PPG)

Ikasleen %77ak dio txostenak oso (%17ak) edo nahiko (%60ak) egokiak izan direla enpresa txiki zein ertaineko Aholkularitza prestakuntza baterako (ikusi 4.grafikoa), eta aipatutako txostenek hasieratik espero zutenaren mailan ikasleen %28arentzat *zerbait* bete dutela, *nahikoa* bete dutela %57arentzat eta guztiaren %15arentzat *asko* (g.grafikoa ikusi).

4. Grafikoa: PPG txostenen egokitzapen maila




5. Grafikoa: PPGeko txostengileek ikasleek zituzten itxaropenen betetze maila




PROGRAMA GARAITUZ PROGRAMA

Hala ere, ikasleen parte-hartzearentzat txostenen materialek izan duten balio kontutan hartzen badugu, hauetako %59ak diote ez direla nahiko baliagarriak izan, ikusita inkestatuek gehien markatu duten aukera *nolabait erabilgarria* izan dela, %54a esaterako. Era berean, ia %13ak uste du emandako materialak *baliorik gabekoak* zirela, %60ak *nolabait erabilgarriak* eta %28ak garrantzitsutzat hartu ditu banatutako txostenak, hauen erabilera parte-hartzerako nabarmena izan dela adieraziz. Zentzu honetan, zehaztekoa da PPGaren hobekuntzarako proposamenak II Multzoaren azkeneko galderan jasoak geratzen direla .

6. Grafikoa: parte-hartzearekiko txostenek izan duten erabilera maila




7. Grafikoa: parte-hartzean zehar txostenen materialaren erabilera maila




Ikasleek era oso berdintsuan baloratzen dituzte hasierako PPGaren egokitzapena eta aldizkako mintegien PPGaren denboraren banaketa, gehiengoek egokitzat baloratzen dituztelarik, pertsonen %79ak *nahiko egokiak* edo *oso egokiak* izan direla diotela eta zentzu berean egiten du %77ak aldizkako mintegiei buruz.

8. Grafikoa: bi asteko PPG trinkoaren egokitzapena



9. Grafikoa: Mintegien aldizkakotasunaren egokitzapena



Garaituz Programan enpresan parte-hartzearekin PPGan zehar eman diren txostenen loturari buruz ikasleek eginiko balorazioan¹, positiboki nabarmentzen diren lau izan daude, ordena honetan: 83 punturekin Zigor Maritxalarrek lortu du puntuaziorik altuena, 70 punturekin Eduardo Mallesek jarraitzen dio, hirugarrenkoa 61 punturekin Aloña Martiarena eta azkenik 55 punturekin Koldo Saratxaga.

Txostenek ikasleengan eduki dituzten inpaktu positiboek hitz egiten badugu, orokorrean, Koldo Saratxagaren txostena nabarmenduko genuke, 112 puntu lortu baititu. Bigarren posizioan Zigor Maritxalar dugu 74 punturekin, berriro ere ikasleek gehien baloraturiko txostengileen artean aurkitzen duguna.

¹ Txostenen lehentasun ordenaren sailkapena eskatzen zen galderen ebaluaziorako, puntuazioa era honetan eman da: ikasle bakoitzak gehien bozkatu duen aukerarentzat 3 puntu, 2 puntu gehien bozkatu den bigarren aukerarentzat eta puntu 1 hirugarrenarentzat. Era honetan, amaierako sailkapena egin ahal izateko, txostengile bakoitzak jaso duen puntuazio denen batura egin da.

PROGRAMA GARAITUZ PROGRAMA

Nabarmentzekoak dira, eta nahiz eta orain azaldutakoen puntuazio berbera ez lortu, beste txostenen artean puntuazio altuak jaso dituzten ondorengoak: Abantian (48 puntu), Eduardo Malles (40 puntu), Aloña Martiarena (36 puntu) edo José Miguel Blanco (27 puntu).

Bestalde, garrantzi gutxien eduki dituzten txostenen artean, Susana Surutusaren mintegia dugu (99 puntu). Bigarren posizioan, nahiz lehenengo posizioko puntuaziotik urrun, Mikel Zurbano 44 punturekin eta Grupo Cei-k 28 puntu.

Bukatzeko, multzo honetako galdera irekian ikasleari aukera eman zaio PPGan batzea egokia litzatekeen gai/sail edo erremintaren bat azaltzeko.


Zentzu honetan, nabarmentzekoa galdera honetan jasotako erantzun portzentaje altua, jasotako balorazioen %50a esaterako. Laburpen modura, galdera honetan bere iritzia jaso duten ikasleek, kasu praktikoetan oinarrituriko prestakuntza eskatzen dute, enpresa mundura gehiago hurbiltzeko gerora topatu dituzten kasuak landu ahal izateko. Beraz, ikasleen parte batek Zigor Maritxalar edo Aloña Martiarena bezalako txostengileak eskatzen dituzte, besteak beste, eta garrantzi txikiagoa ematen diote txosten teorikoei, askotan ez baita posible hauen ezarpena era praktikoan.

Zehazkiago, galdera honi erantzun dioten ikasleen %60ak PPGan faltan bota ditu ERP, TICS, Access, Excel, etab. Erremintekin erlazionaturiko txostenak, ikusita enpresaren parte-hartzean hauek izan duten garrantzia.

III Multzoa: Enpresan parte-hartzea


Ikasleen %70ak dio parte-hartzerako enpresak erakutsi duen konpromiso maila *nolabait egokia* edo *nahiko egokia* izan dela. Ikasleen %20ak dio enpresak konpromiso mailarik altuenera iritsi direla eta %10ak besterik ez dio enpresak konpromiso maila baxua erakutsi duela.

10. Grafikoa: Garaituz Programarekin enpresaren konpromiso maila




Ikasleek uste dute orokorrean enpresak UPV/EHUtiko emandako baliabidetaz baliatu direla, %76ak diotenez, beraz, ikasle gehienak baieztapen honi buruz erdialdeko emaitzetan kokatzen dira. Nabarmentzekoa da %10ak bakarrik uste duela enpresak ez direla baliabidetaz baliatu.

11. Grafikoa: UPV/EHUK emandako baliabideen ustiapena enpresaren aldetik




12. grafikoan ikus dezakegunez, inkestatuen ia %75ak parte-hartzearen garapen egokirako bere gaitasuna pertsonal eta profesionala *nahiko aproposa* edo *oso aproposa* izan dela uste du. Halaber, bat ez ezik, ikasle guztiek diote euren jarrera egokia izan zela (13.grafikoa ikusi) eta ia %70ak baieztatzen du GARAITUZeko 2. lerroan jasotako zereginak betetzeko gai izan dela (14.grafikoa ikusi). Aurreko datuek azaltzen dute ikasleen %80a asebeteta dagoela esperientzian lortutako ikasketarekin, eta %5ak besterik ez du uste euren ikasketa mailaren emaitzak egokiak ez direla, 15.grafikoak ikus daitekeenez.


12. Grafikoa: ikasleen gaitasunen egokitzapen maila




13. Grafikoa: ikaslearen jarrera positiboa



14. grafikoa: GARAITUZ programako 2. lerroko praktiken egokitzapen maila




15. Grafikoa: parte-hartzean zehar ikaslearen ikaskuntza maila




Ikasleen %25ak dio euren jokaera *nolabait emankorra* izan dela eta %44ak *nahiko emankorra*, hirugarren lekuan kokatzen delarik *oso emankorraren* taldea %24arekin. Bestalde, ikasleen %75ak tutoreen jokaera laguntza handikoa edo emankorra izan dela uste du, bat ere asegabea izan dela diotenen portzentajea %4a delarik.

16. Grafikoa: ikasleen arrakasta maila euren parte-hartzearen datuen deribazioa kontutan hartuz



PROGRAMA **GARAITUZ** PROGRAMA


17. Grafikoa: ikasleen asebetetze maila tutorearen parte-hartzeari buruzko emaitzak



Respecto al impacto de la intervención en la empresa, se observa una división de opiniones, siendo ligeramente superiores, con un 55%, aquellas en las que el alumno cree que se ha producido un cambio positivo y apreciable en la organización, destacando que una tercera parte de ellos, es decir un 17% del total, estima muy positivo y apreciable para la empresa el paso de la UPV/EHU por la organización. El resto, un 45%, valora como nada o algo relevante el resultado final de la intervención en la empresa. No obstante, en esta cuestión se aprecia una clara inclinación del alumnado por las tendencias centrales (algo o bastante).


Enpresan parte-hartzeak izan duen eraginari buruz, iritzi ezberdinak antzeman daitezke: erakundean aldaketa nabari eta positiboa izan dela baieztatzen dutenak %55 dira. Nabarmenezkoa da baita ere guztiaren %17ak UPV/EHUren laguntza ekarpen nabaria eta oso positiboa izan dela esaten dutenak. Besteak, %45ak, UPV/EHUren laguntza *bat ere ez* edo *nolabait garrantzitsua* dela diote. Hala ere, galdera hauetan nabaria da ikasleek erdiko erantzunak aukeratu dituztela (zerbait edo nahikoa).

18. Grafikoa: UPV/EHUren parte-hartzearen amaierako inpaktuaren balorazioa



%65a *nahiko* edo *oso asebeta* egotea aitortu du hasieran esperotakoa kontutan hartuta. %35ak dio Garaituz Programaren parte-hartze osoan gertatutakoa pertsonalki espero zuenaren azpitik egon dela, eta 82 pertsonatik 11 dira aitortzen dutenak itxaropen horiek lortu ez dituztela.


19. Grafikoa: Ikaslearen pertsonalki espero zuena




IV Multzoa: UPV/EHU (Koordinazio Taldea eta IIP)

Ia ikasleen %90ak UPV/EHUK banatutako baliabide pertsonal zein materialak azpimarratu ditu oso positibotzat, baita Garaituz Koordinazio Taldeak eskaintako arreta, grafikoetan ikusi dezakegunez:

20. Grafikoa: UPV/EHUK ikasleari emandako baliabideen onarpen maila




21. Grafikoa: Garaituz Programako Koordinazio Taldeak ikasleari emandako arretarekiko adostasuna




UPV/EHUko irakasleek praktikan izan duten tutorizazioari buruz, inkestatuen ia %80ak dio tutoreak balio erantsi nabarmena gehitu diola enpresan egindako ekarpenari. Zentzu honetan, azpimarragarria da inkestatuen %91ak tutoreak emandako arreta positiboki baloratzen dutela, parte-hartzean izan duten beharrak konpontzeko.

22. Grafikoa: Ikaslearen pertzepzioa UPV/EHUko tutoreak gehituriko balio erantsiarekiko



23. Grafikoa: Ikaslearen adostasuna UPV/EHUko tutoreak emandako arretarekiko



V Multzoa: Beste azalpen kualitatiboak

Orokorrean, ikasleek Programaren bilakaerarekiko arrakasta azaltzen dute, ikaskuntza maila handia lortu, eta kasu askotan, inguruko enpresa txiki eta ertainekin harreman aberasgarria atera dutela.

Hala ere, zenbait hobekuntza puntu azpimarratzen dituzte. Ikasle batzuk, programa egoki ulertu ez duten enpresak daudela nabarmentzen dute, eta horregatik, eraginkortasun ezak sortu dira ikasleari ikaskuntza maila altuago bat galaraziz eta enpresak lortu ahal zituen helburuen lorpena bertan behera utziz Garaituz Programak emandako baliabideen kudeaketa egokia ez egiteagatik.

Ikasle kopuru handi batek uste du hasierako txostenetan erreminta batzuk indartu beharko liratekeela, parte-hartzea ezaguera tekniko-praktikoz aurrera eraman ahal izateko; era berean, beste ikasle talde batek gehiegizkotzat jo ditu aholkularitzari eskainitako txostenen zenbatekoa, bereziki aholkularitzak berak lan egiten zuen erari buruzko mintegiak.

Bestalde, ikasle batzuk multzo honetaz baliatu dira aholkularitza batzuen parte-hartzearekin duten desadostasunaz mintzatzeko, kasu batzuetan ez delako harremanik egon ikasle eta aholkularitzaren artean, eta egon denetan, ikasleak antzeman du aholkularitzak bere interes propioez arduratu dela.

Amaitzeko, eta PPGari buruz, ikasleek mintegi batzuetan txostengileek erabilitako materiala jaso ez izana nabarmentzen dute, nahiz eta azken hauek adierazi UPV/EHUko ikasle guztiekin zabalduko zutela.

IKUSPEGI OROKORRA

Garaituz Programako ikasle guztiei esker posible izan da programaren garrantzizko ebaluazio bat egitea honako informea ahalbidetu duena, zuzenean ikasleen iritzi eta erantzunetatik ateratako zenbait ondorioetara hurbiltzen gaituenak.

Ebaluazio honetako lehenengo ondorio modura esan daiteke orokorrean ikasleek Garaituz Programarekiko asebetetzea erakutsi dutela. Honen garapenari buruzko balorazio positibo orokorra egin dute euren erantzunen bidez, non planteaturiko galdera gehienetan adostasun maila altua izan den.

Bigarren ondorio modura, ikasleek orokorrean Prestakuntza Programa Gehigarria eta enpresan egindako parte-hartzeak oso ondo baloratu dituzte, adierazi beharra dago ere, tamaina honetako programan ez hain aberasgarriak izan diren esperientziak ere egon direla, ikasleengandik galdeketa honetan azalduta izan direnak.

Azkenik, nabarmentzekoa da ikasleek ulertu dituztela programaren ildo ezberdinak aurrera eramateko UPV/EHUK izan dituen zailtasun operatiboak, eta tutoreek zein Koordinazio Taldeak egindako esfortzuekiko esker ona azaldu dutela. Zentzu honetan, ikasle kopuru handi batek hobekuntzarako proposamenak egiten parte hartu du galdera zabaletan egindako ekarpenekin, etorkizunean etor daitezkeen Garaituz Programa edo ezaugarri berdintsuko programen edizioetarako.

PROGRAMA GARAITUZ PROGRAMA

I ERANSKINA: GARAITUZ PROGRAMAREN EBALUAZIORAKO GALDEKETA – IKASLEAK

Argibide orokorrak: zure iritzi konstruktiboa asko interesatzen zaigu, horregatik, zure iritzi eta iradokizunak jasotzen saiatu. Baloraziozko galdera itxiatarako, ondorengo eskala hartuko da kontutan:

-Ezer (1) -Zerbait/Nolabait (2) -Nahikoa (3) -Asko (4)

I Multzoa: Hautaketa prozesu eta Programari buruzko informazioa

1. Adierazi zein den Garaituz Programari buruzko informaziorako hasierako
 - Ikaskideak
 - UPV/EHUko irakasleak
 - UPV/EHUK bidalitako posta elektronikoa
 - UPV/EHUko web gunea
 - Besteak
2. www.ehu.eus-etik zein Koordinazio Taldearengandik jasotako informazioa argia eta nahikoa izan zen proiektuaren sena ulertzeko
 - (1) - (2) - (3) - (4)
3. Hautaketa prozesua ezaugarri hauetako programa batentzat egokia izan zen
 - (1) - (2) - (3) - (4)
4. Zein alderdi bota zenituen faltan edo zein alderdi hobetuko zenituzke?

II Multzoa: Prestakuntza Programa Gehigarria (PPG)

1. Orokorrean, enpresa txiki eta ertaineko aholkularitza programa batentzat txostenak egokiak izan direla uste dut
 - (1) - (2) - (3) - (4)

PROGRAMA **GARAITUZ** PROGRAMA

2. Orokorrean, txostengileek espero nuena bete dute
 - (1) - (2) - (3) - (4)
3. Orokorrean, uste dut txostenak erabilgarriak izan direla nire parte-hartzeari aurre egiteko
 - (1) - (2) - (3) - (4)
4. Nire parte-hartzean zehar PPGan emandako irakasleen materiala erabilgarria izan da
 - (1) - (2) - (3) - (4)
5. PPGaren hasierako aldia (trinkoa bi astetan) egokia iruditu zait
 - (1) - (2) - (3) - (4):
6. Mintegiak gauzatu diren aldizkakotasuna, programa trinkoa atzean lagata, egokia iruditu zait
 - (1) - (2) - (3) - (4)
7. Ordenan nabarmenduko zenituen hiru txostengile aipatu
 - a. Parte-hartzerako erabilgarriena iruditu zaizuna
 - 1.
 - 2.
 - 3.
 - b. Txostenaren berezko interesarengatik (edukia, ikuspegi, berritasun...)
 - 1.
 - 2.
 - 3.

PROGRAMA GARAITUZ PROGRAMA

c. Azalpenaren garrantzi gutxiagatik (interesa falta, PPGarekiko erlazioa, prestakuntza...)

1.

2.

3.

8. Baldin balego, PPGen sartzeko egokia litzatekeen materia/sail/erremintaren bat aipatu

III Multzoa: Enpresan parte-hartzea (Enpresa bat baino gehiagotan parte hartu baduzu, batezbesteko orokor bat egitea iradokitzen dizugu. Kasu berezi bati buruzko oharra egin behar bazenu, V multzoaren bidez egin dezakezu).

1. Enpresaren konpromisoa “Kudeaketa Ereduaren Definizio eta Ezarpena” helburuekiko egokia izan da

- (1) - (2) - (3) - (4)

2. Enpresaren Garaituz Programako 2. lerroaren garapenerako UPV/EHUK emandako baliabideen ustiapena egokia izan da

- (1) - (2) - (3) - (4)

3. Enpresan egokitu zaizkidan zereginetarako nire ezagupen eta konpetentzia profesionalen egokitzapena aproposa izan da

- (1) - (2) - (3) - (4)

4. Nire jarrera egokia izan da enpresan izan dudana parte-hartzean

- (1) - (2) - (3) - (4)

5. Enpresan eman zaizkidan zereginak Garaituz Programaren 2.ildoko garapenari egokitu zaizkio

- (1) - (2) - (3) - (4)

6. Nire ikaskuntza arrakastatsua izan da enpresan edukitako parte-hartzean zehar

- (1) - (2) - (3) - (4)

PROGRAMA GARAITUZ PROGRAMA

7. Nire parte-hartzetik ondorioztatutako emaitzak arrakastatsuak izan dira
 - (1) - (2) - (3) - (4)
8. Nire tutorearen parte-hartzetik deribatutako emaitzak arrakastatsuak izan dira
 - (1) - (2) - (3) - (4)
9. Programaren 2.ildoan UPV/EHUK egindako parte-hartzearen amaierako inpaktua garrantzitsua izan da enpresan
 - (1) - (2) - (3) - (4)
10. Programa hasieran nituen itzaropenak guztiz estaldu dira
 - (1) - (2) - (3) - (4)

IV Multzoa: UPV/EHU (Koordinazio Taldea eta IIP)

1. UPV/EHUK nire parte-hartzea era egoki batean garatu ahal izateko behar besteko baliabide pertsonal eta materialak eskaini dizkit
 - (1) - (2) - (3) - (4)
2. Garaituz programako koordinazio taldeak nire beharrez arduratu da
 - (1) - (2) - (3) - (4)
3. Nire enpresak parte hartu duen UPV/EHUko irakasleak balio erantsia gehitu dio enpresari egindako ekarpenean
 - (1) - (2) - (3) - (4)
4. Irakasle honek, tutorizazio lanetan, nire beharrez egoki arduratu da
 - (1) - (2) - (3) - (4)

V Multzoa: Beste azalpen kualitatiboak

Nahi izanez gero, egokiak iruditzen zaizkizun beste iritzi batzuk jaso itzazu ondorengo esparruan.

Eta hau da guztia, eskerrik asko berriz ere egindako ekarpenagatik.

II ERANSKINA: EMAITZEN LABURPEN TAULA

GALDERAK	ERANTZUN MAILA BAKOITZEKO PORTZENTAJEAK			
	EZER	ZERBAIT/NOLABAIT	NAHIKOA	ASKO
I MULTZOA				
Koordinazio Taldearengandik zein www.ehu.eus-etik jasotako informazioa argia eta nahikoa izan zen proiektuaren sena ulertzeko	0%	15%	52%	32%
Hautaketa prozesua ezaugarri hauek dituen programa batentzat egokia izan zen	2%	13%	56%	29%
II MULTZOA				
Orokorrean, enpresa txiki eta ertaineko aholkularitza programa batentzat txostenak egokiak izan direla uste dut	0%	23%	60%	17%
Orokorrean, txostengileek espero nuena bete dute	0%	28%	57%	15%
Orokorrean, uste dut txostenak erabilgarriak izan direla nire parte-hartzeari aurre egiteko	5%	54%	37%	5%
Nire parte-hartzean zehar PPGan emandako irakasleen materiala erabilgarria izan da	13%	59%	18%	10%
PPGaren hasierako aldia (trinkoa bi astetan) egokia iruditu zait	1%	20%	52%	27%
Mintegiak gauzatu diren aldizkakotasuna, programa trinkoa atzean lagata, egokia iruditu zait	1%	22%	43%	34%
III MULTZOA				
Enpresaren konpromisoa "Kudeaketa Ereduren Definizio eta Ezarpena" helburuekiko egokia izan da	10%	30%	40%	20%
Enpresaren Garaituz Programako 2. Ildoaren garapenerako UPV/EHUK emandako baliabideen ustiapena egokia izan da	10%	34%	32%	24%
Enpresan egokitu zaizkidan zereginetarako nire ezagupen eta konpetentzia profesionalen egokitzapena aproposa izan da	5%	21%	48%	27%
Nire jarrera egokia izan da enpresan izan dudana parte-hartzean	0%	1%	43%	56%
Enpresan eman zaizkidan zereginak Garaituz Programaren 2. Ildoko garapenera egokitu zaizkio	4%	27%	40%	29%
Nire ikaskuntza arrakastatsua izan da enpresan edukitako parte-hartzean zehar	5%	16%	29%	50%
Nire parte-hartzetik ondorioztatutako emaitzak arrakastatsuek izan dira	7%	24%	44%	24%
Nire tutorearen parte-hartzetik deribatutako emaitzak arrakastatsuek izan dira	4%	20%	40%	37%
Programaren 2. Ildoan UPV/EHUK egindako parte-hartzearen amaierako inpaktua garrantzitsua izan da enpresan	7%	38%	38%	17%
Programa hasieran nituen itxaropenak guztiz estaldu dira	13%	29%	30%	27%
IV MULTZOA				
UPV/EHUK nire parte-hartzea era egoki batean garatu ahal izateko behar besteko baliabide pertsonal eta materialak eskaini dizkit	0%	11%	34%	55%
Garaituz programako koordinazio taldeak nire beharrez arduratu da	1%	12%	27%	60%
Nire enpresak parte hartu duen UPV/EHUKo irakasleak balio erantsia gehitu dio enpresari egindako ekarpenean	4%	28%	34%	34%
Irakasle honek, tutorizazio lanetan, nire beharrez egoki arduratu da	0%	11%	34%	55%